

Igerabidek hitzaldi bat emango du asteartean

Liburuaren Egunaren bueltan, literaturaz hitz egingo du idazleak Ataungo liburutegian

A. Apalategi

Igande honetan, hilak 23, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da. Hori dela eta Ataungo Liburutegiak Juan Kruz Igerabide idazlea gonbidatu du datorren astearterako. Hitzaldia herriko liburutegian izango da, astearte arratsaldeko 15:00etan.

Igerabide Adunan jaio zen 1956an. Magisteritza eta Euskal Filologia ikasketak egin ditu, eta gaur egun unibertsitateko irakaslea da. Literaturari dagokionez, poesia eta haurrentzako ipuinak argitaratu ditu, baita eleberriak ere. 1999an Euskadi saria jaso zuen Jonas eta hozkailu beldurtia lanagatik.

Hitzaldirako deialdia egiteaz gain, antolatzaileek udal liburutegia erabiltzeko gonbitea ere egin diete herritarrei.